



Eskola-porrotaren prebentzio goiztiarra

- Haur hezkuntzan antolaketa neurologikorako programari eusten diogu.
- 16 irakaslek Madrilen burututako ikastaroan formazioa jaso dute.



Maialen Arizaleta, Izaro Urrestarazu eta Mikel Oiarbide.

Ba al zenekien 0 eta 6 urte bitarteko etapa dela garairik emankorrena, garunaren garapenari dagokionez? Ikasi ahal izateko, haurrak ondo osatuta eduki behar du garuna; ikusmen eta entzumen tresnak, eta tresna motoreak ezinbestekoak ditu informazioa prozesatzeko. Haurrari ikasketa erraza eta atsegina gerta dakion, ingurune emozionala, soziala eta fisiologikoa ondo garatuta izan behar ditu. Horrez gain, garapen sensoriala (haurra munduarekin konektatzeko bideak, ikusmen eta entzumenaren eremuetatik) eta psikomotorea egokia izan behar du. Hau dela eta, Haur Hezkuntza osoan 2012/2013 ikasturtean martxan jarritako Prebentzio programari gogotik eusten diogu.

Haurrak dituen hiru tresna hauek ondo garatuta doazela ziurtatu nahi dugu Ikastolan. Haur Hezkuntzan detektatuta, ikasketarazoei aurrea hartzea errazagoa izango delakoan gaude.

Alderdi motorea lantzeko, ikasleek egunero ordu erdia eskaintzen dizkiete ariketei, ikusmena suspertuz aldi berean. Haurrak lurtean etzanda arrastaka ibiltzen dira "sugeka" eta lurtean belauneko "katuka". "Kroketa" (lurtean etzanda bueltaka); "kanguroa" (saltoka) ere badaude. Eta ez dezagun "brakiazioa" ahaztu, eskailera batean, horizontalean, egiten dituzten ariketak.

Azken hauek beso eta hanken arteko koordinazioa, baita eta begi eta esku arteko koordinazioa ere lantzeko balio dute.



Kontua ez da haurrak ondo ikusten edo entzuten duen, baizik eta ikusten edo entzuten duen hori garunak modu egokian prozesatzen eta barneratzen duen. Oinarrizko tresna horiek ez garatzekotan, haurrak herrenka hasiko ditu ikasketak. Hauexek dira eskola-porrotaren arriskuan dauden ikasleak.

Jada indarrean dugun Prebentzio programa eraginkorra bezain konplexua da, beraz, iragan udazkenean Maria Jesus Lopez neurobiologarekin formazio ikastaro bat jaso zuten 16 irakaslek, Madrilen, asteburu batez.

La Ikastola sigue apostando por el llamado "programa de prevención". Se trata de un innovador proyecto que busca detectar de manera precoz problemas de desarrollo que puedan abocar al alumno al fracaso escolar durante su vida académica y

conseguir unas conexiones cerebrales adecuadas en el campo de la visión, el auditivo y el psicomotriz. Dada la importancia y complejidad de dicho programa, 16 profesores de Educación Infantil han continuado con su formación en un curso intensivo en Madrid impartido por la neurobióloga María José López.

2 KIROLAK

2 IRTEERAK


3 BERRIAK

3 IRITZIA

4 ERREPORTAIA

EZ OHIKO KIROLAK

Bo-Taoshi

 *Maya Ebbouh, Ander Muxika, Ibon Lopetegi eta Aitor Yáñez*

Japonian aurkitu daitekeen kirol bat da 1954-55. urtean sortua. Antza, Bigarren Mundu Gerrako japoniar itsasontzietan jolasten zen, tripulazioa entretenitzeko. Kirol honetan 75 pertsonako bi talde leihatzen dira. Talde bakoitzak 3m-ko makil bat defenditu behar du, makilaren gainean mutil bat bandera baten moduan jarrita dagoelarik. Amaitutzat emateko, makilak 45 graduko inklinazioa gainditu behar du.



Ez dago arauik, denak balio du: bultzakadak kolpeak...
Ikus ezazu bideo hau: <https://www.youtube.com/watch?v=Y2OfCkCJg2E>

KIROLAK

Xakea



EÑAUT MUXIKA 1. postua, UNAI ZUBELDIA 2. eta AIMAR UGARTEMENDIA 3. postua. (mutil alebinak) eta URKO MAYORDOMOK 2. eta URKO EGUES 3. postua (mutil benjaminak).

ZORIONAK DENOI!

KIROLAK

Ero-Etxe krosean kirol giro ederrean emaitza aipagarriak



Aurtengo Ero-Etxe krosean, UZTURPE IKASTOLAKO azken urteotako partaidetza gorakadari eutsiaz, giro bikaineko kirol festa ederrean aritu ziren bertan bildu ziren korrikalariak. Denera 77 lagunek parte hartu zuten. Julen Iraolak mutil infantiletan 10. postua eskuratu zuen. Izarne Sarasolak neska infantiletan aipagarria den 2. postua eta Amaia

Santosek 8. postua. Neska alebinetan June Zinkunegik 1. postua, Lide Goikoetxeak 3.a, Saioa Ugowek 5.a eta Eneritz Jauregik 9. postu bikainak eskuratu zituzten. Mutil alebinetan Unax Armendarizek 6. postua eskuratu zuen.

Zorionak kirolaren festa ederrean parte hartu zenutenon 77 lagunoi!

IRTEERAK

Eskiatzera joan ginen!

Miraria gertatu zen azkenean. Euripean hainbeste aste iragan ondoren, zerua urdinu eta eguzkia lagun izan genuen bi eguneko irteeran. DBHkoak joan ginen. Aukeran, iraupen ala alpino eskia; Somporten lehengoak eta

Candanchun besteak. Eskiatu ostean, Jakatik bueltaxka bat eman genuen afaldu aurretik, lasai ederrean. Eta hurrengo egunean pistetara bueltatu ginen. Ez dago esan beharrik gure irteerarik kuttunetakoa dela Piriniotakoa!



Garagune ere gurean

Ibarran dira behar bereziak dituztenen laguntzaileak



Ainara Santos, Irene Aizpuru eta Iratxe Lizarburu

Ba al zenekien Garagune martxan dagoela Ibarran?

Hasiera batean Tolosan zegoen kokatua baina 2014eko irailaren 1ean, Ibarrara ekarri zuten, nahiz eta inaugurazioa 2015eko urtarilaren 31ean izan. Ibarran, adimen urritasuna duten 13 pertsona ematen die laguntza, eta hauei laguntzeko bi monitore eta laguntzaile bat ari dira lanean.

Garagune fundazioa Donostian sortu zen 1950. urtean. Zentru hauen helburu nagusia adimen urritasuna duten pertsona helduak lehen mailako herritar bilakatzea da. Horretarako, gaur egun 11 zentru daude Gipuzkoa, eta horietako bat Ibarran ireki dute. Zentru pribatuak dira baina aldi berean subentzionatuak

daudenez, zentru publikoak izango balira bezala jarrita daude. Hasiera batean, zentru hauek “Gureak” tailerretako langile ohiak ziren pertsonentzat eraiki zituzten. Denboraren poderioz, Garagunek adimen urritasuna duten edozein heldurentzat atea ireki ditu.

Zentru hauetan hainbat ekintza burutu ahal izaten dira, eta adimen urritasuna duten partaidetee oso gustuko ekintzak burutzen dituzte: pintura, baratza, sukalde, bingoa, gimnasia, jostintza eta eskulanak...

Bertako arduradun den Mertxe Amianok aipatu digunez, boluntarioekin lan egiten dute. Amianok gonbita zabandu nahi die beraiekin bat egin nahiko lukeen edonori.

Zuen keinu txikien zain

Mapi Egues, Josu Gordejo eta Joseba Tobias

Ikastolako leihotik begira gaude. Goizeko txirrinak jo baino ordu laurden lehenago, auto eta autobusen arteko kolapsoari erreparatu diogu. Agerikoa da anabasa. Astelehenetik ostiralera, astero astero gertatzen da: nahiz eta 15 minutuko kontua besterik ez izan, auto asko elkartzen diren biltokia izaten da, ikasleak ikastolan uzteko garaian. Ibarrako Ikastolako aparkamendua txikia da, tamalez, eta kotxeak eta haurren autobusa elkarren artean oztopatu egiten dira. Pentsatu al duzue inoiz izugarrizko kontsumoa sorrarazten dutela honek?. Arazoa ez da makala, azken urte hauetan gero eta altuagoa baita ikastolara etortzen den auto kopurua. Baina okerrera ez da hori; larriena auto bakoitzean bat ala bi pertsona besterik ez datozela astean zehar. Astelehen goizeko behaketa kontuan hartuta zera komentatu dugu gure artean: kotxe guztiak beteta etorriko balira, 14 auto inguru gutxiago etorriko lirateke. Honek, alde positiboa ekarriko lukeelakoan gaude, hau da, kontsumoa txikiagoa izango litzatekeela. Urteen poderioz, pertsonen bizi-kalitatea gero eta hobetuz joango dela pentsatu nahi dugu. Honez gain, keinu txiki batzuen bitartez gauzak are egokiagoak lortu daitezke. Bizi-kalitatea hobetzeko adibide nagusiak hauek izango lirateke: bai ikastolara, bai beste edozein lekutara oinez joatea, ahalik eta ur eta argi gutxi-ien gastatuz... Honekin batera, autoak alde batera utziko bagenitu, zarata ere txikiagoa izango litzateke eta bizilagunek asko eskertuko zuten gauza izango litzateke. Gainera, autoak alde batera dituzten pertsonak oinez edo bizikletaz mugituko balira, osasun hobetuz joango litzateke, eta goiz edo arratsaldeetako bista ederrak ikusteko aukera izango lukete. Beste aukeretako bat, auto konpartitua erabiltzea da. Gaur egun, Interneta edonork erabili dezake. Horretarako hainbat web orrialde daude. Ez dago aitzakiarik. keinu txikiak baitira aipatutakoak. Onurak, aldiz, uste baino handiagoak.

IRTEERAK

Aurtengoan ere, Frantziara!

Ale hau eskuetan duzueneko Frantzian izango dira gure DBHko hainbat ikasle. 22 dira, hain zuzen, Langon herriarekin elkar-trukaketa programan parte hartu dutenak. Frantsesa, besteak beste, ikasiko dutelakoan gaude!

ERREPORTAIA

Mendebaldeko Saharari bi begirada

Maya Ebbouhk eta Maider Sarasolak bihotzean daramate Saharar herria. Tartetxo bat kendu diegu maitasun honen nondik-norakoak ezagutzeko.

 Leire Romero, Aitor Maiza, Tider Sarasola eta Aitor Sánchez

Saharatik EHra

Zorte handia dugu Uzturpeko ikasleok ikastetxean aurki dezakegun kultur aniztasuna dela eta. Munduko hainbat lekutako lagun daude gurean: Sahara, Pakistan, Ukraina... bakoitzak kultura, bizimodu eta ohitura ezberdin batzuen ekarpena eginez. DBH4ko Maya Ebbouhk dugu haietako bat.

Maya, Mendebaldeko Saharatik etorri zen duela 9 urte, El Aaiun izeneko herrialdeetik, hain zuzen. Sahara okupatuko herririk garrantzitsuenetako bat da berea. Gogoan izan Marokok okupatuta dagoela 1975tik.

Euskal Herrira iritsi zenetik, Mayak ezberdintasun handiak somatu ditu hango eta hemengo bizimoduen artean. Han, duela gutxira arte, ez zegoen ia etxerik, ezta eskolarik ere. Bizi kalitatea txarra izan arren, denak familia moduan bizi dira, duten gutxia denen artean partekatuz. Mayak dioenez, hemengo jendeak ikasteko asko du hango bizimoduaz, "batez ere haien eskuzabaltasunaz".



Atzerritar ugarik aurreikuspen handiak ohi dituzte eta Maya ez da salbuespena. Gure lagunak diosku pelikuletan arabera oso polita zirudien Europa. Espero zuenaren gauza bera ez izan arren, hemengo bizimodua nahiago duela aitortu du. Egunerokotasunean gauza askok eman dio atentzioa, hasteko emakumeak "askatasun" handiagoa dutela sentituz. Saharako kulturen, erretzea edo alkoholaren edariak kontsumitzea guztiz debekatuta dute emakumezkoek. Bestalde, hemengo jendearen harrera itxiagoaz ere hitz egin zigun, "han anai-arrebak ginen, hemen, aldiz, lagunak", azpimarratu digu.

Hein handi batean, Maya historiaren pasarte garrantzitsuen lekuko izan da. 2010ko abenduan, Gdeim Izzik ("duintasuna") protesta kampanenduan egon zen. Marokoko gobernuak indarrez kanporatu zuen, hango jende asko zauritu, ala hil zirelarik. Aditu askoren arabera, honek, eta ez Tunisiako oldarraldiek, piztu zuen Arabiar Iraultza deituriko mugimendua.

Mayak oso urrun ikusten du Maroko eta Sahararen arteko gatazkaren amaiera. Konponbide politikorik ez du aurreikusten eta, esan digunez, "Marokoko gobernuak saharar guztiak etxetik bota beharko ditu gatazka amaitzeko. "Ordura arte", jarraitu du, "gureari eutsiko diogu".

EHTik Saharara

"Nire aitak Mendebaldeko Sahararen egin zuen zerbitzu militarra. Etxean txiki-txikitatik maite izan dugu Saharar herria". Honela laburbildu du Uzturpeko irakasle Maider Salaberriak herri honekiko bere konpromisoaren jatorria. Azken zortzi urteotan legez, Maiderrek hango ume bat hartuko du bere etxean. Ardura handia dela aitortu digu, baita "aberatsa oso". Zalantzarik gabe, Mendebaldeko Sahararen aldeko apustu sendoa da gure irakaslearena. Urtero kanpamenduetara bisita egiten saiatzen da. Bestalde, ikastolako janari bilketa kudeatzen du. "Aurten ia 300 kilo jaso ditugu Uzturpeko kideei esker. Pozik nago", aitortu digu irakasle-ekintzaileak. Baita gu ere!

✂ KEXA ETA IRADOKIZUNAK QUEJAS Y SUGERENCIAS:

Nire kexa edo iradokizuna:
Mi queja o sugerencia:

Izen-abizenak:
Nombre y apellidos:

Erantzutea nahi al duzu?
¿Quieres que te respondamos?

BAI SI EZ NO

Tel.: _____ ✂

Uzturpe Ikastola



 Egialde 2, 20400 Ibarra
 943 67 12 99
 943 67 56 32
 ibarra@ikastola.net
 www.uzturpe.eus



Laguntzaileak:

